

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen 2024-2025eko deialdiaren oinarriak

Udalbatzak 2025eko ekainaren 3ko osoko bilkuran Euskara ikasteko laguntzen 2024-2025eko deialdia eta oinarriak onartu zituen.

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN 2024-2025eko DEIALDIAREN OINARRIAK

Deialdi honek diru-laguntzak lehiaketa bidez ematea du helburu, udalerrian euskararen sustapenean laguntzeko xedez, hain zuzen ere, baldin eta honako eraren batean egiten badira:

1) Euskara ikasteko bekak (2024ko urriaren 1aren eta 2025eko irailaren 30era artean egingako ikastaroak).

2) Deialdi hau ondokoek arautuko dute: oinarri hauek, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, eta udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen kudeaketa ondoko oinarrien arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza, bai eta zehaztutako helburuak betetzean eraginkortasuna eta baliabide publikoen esleipen eta erabileran efizientzia ere.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2024-2025 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostatukoak izan ezik), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilerara handitzeko.

Bigarrena. Onuradunak

Laguntza hauek eskatzeko ondoko betekizunak bete behar dira:

- Iruraiz-Gauna udalerrian erroldatuta egotea, bai ikastaroaren hasieran bai amaieran.
- Izena ematean 16 urte baino gehiago edukitzea.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea. Hala ez bada, aipatutako euskaltegietako matrikulak hartuko dira aintzat; hain zuzen ere, ezaugarri bertsuak dituen matrikularik garestiena.
- Barnetegiren baten ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikasketetarako baino ez da emango diru-laguntza; ostaturia eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
- Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntzeko edo alfabetatzeko urrats baten parekoa izan behar da.
- Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da, edo ikastaroa gainditu.

Hirugarrena. Agiriak eta eskaerak

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Udalak egindako eskabide ofiziala.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.
- c) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.
- d) Ikastaroaren ezaugarriak jasotzen dituen euskaltegiaren agiria: ikasturtearen hasiera eta amaiera, asistentziari buruzko datuak, ikastaroa(k) gainditu izanaren egiaztatzea...
- e) Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banan-banan zehaztuko dira.
- f) Langabezian egonez gero, hori egiaztatzeko ziurtagiria.
- g) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

Laugarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

- a) Eskaerak Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, bertan ematen den inprimakian, eskatzen diren agiriekin batera, 2025eko urriaren 31 arte.
- b) Kreditu erabilgarria egonez gero, aztertu ahal izango dira epea kanpo aurkeztzen diren eskaerak.

Bosgarrena. Aurrekontu kreditua eta diru-laguntzen zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2025eko aurrekontu orokorreko 335 480 000 diru-sailaren kredituari egotziko zaizkio. Diru-laguntzaren zenbatekoa ondokoan arabera zehaztuko da, betiere kontuan izanik aurrekontu kredituaren muga:

- a) Eskatzailea langabe egonez gero, matrikularen ehuneko 100 jasoko du. Beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu. Hala balitz kopuru maximoa jasoko luke.
- b) Gainerakoek matrikula osoaren ehuneko 50 jasoko dute. Beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu. Hala balitz kopuru maximoa jasoko luke.
- c) Diru-laguntza kopuru maximoak ikasturteko 500,00 eurokoak izango dira.
- d) Eskatzaileek ikastaroaren iraupenaren ehuneko 40 baino gehiago lan eginez gero, laguntza ehuneko 50ekoa izango da. ehuneko 40 baino gutxiago lan eginez gero, langabetu moduan hartuko da eta ehuneko 100 jasoko du.
- e) Eskatzaile batek lanaldi partzialeko kontratua edukiz gero, eta lanaldia ehuneko 40koa (40 ordu asteen) baino txikiagoa bada langabetu bezala hartuko da eta matrikularen ehuneko 100 jasoko du. Lanaldia ehuneko 40koa baino handiagoa bada matrikularen ehuneko 50 jasoko du.
- f) Beste erakunde batetik diru-laguntza eskuratuz gero, eta matrikula baino kopuru baino txikiagoa jasotzekotan, udalak diferentzia luzatuko du, beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu.

Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

Seigarrena. Bateragarritasuna beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honen babespean emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta diru-laguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada.

Euskara ikasteko bestelako laguntza edo diru-laguntzak eskatu badaitezke eskatu egin behar dira. Onuradunak xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi behar dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntza matrikularen kostuaren eta jaso diren gainerako laguntzen zenbatekoaren aldea izango da.

Zazpigarrena. Onuradunen betebeharrak

- Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.
- Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, baita laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.
- Laguntzan eragina duten aldakuntza edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraztea.
- Iruraiz-Gaunako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudunen batek eskatutako argibide oro ematea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, eta Diru-laguntzen Udal Plan Estrategikoak ezarritako betebeharrak betetzea.

Zortzigarrena. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Euskara zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, horien indarrez egin behar baita ebazpen proposamena.

Iruraiz-Gaunako Udaleko alkatea da diru-laguntzak ebazteko organo eskuduna, eta frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko da emandako diru-laguntza osoa. Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteren barruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta bertan haren aurka jar daitezkeen errekursoak azalduko dira. Ebazpena 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkiderenarena, arabera jakinaraziko da.

Bederatzigarrena. Laguntza galtzea eta itzultzeko prozedura

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedientea irekita, ondoko kasu hauetan:

- Daturen bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- Bete ez bada ezarritako betebeharren bat.

Hamargarrena. Errekursoak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtoa deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; azken horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Hamaikagarrena. Bestelako xedapenak

Oinarri hauek interpretatzean zalantzaren bat sortzen bada, Iruraiz-Gaunako Udalak ebatziko du.

Azilu, 2025eko uztailaren 1a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA